

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### Urkabustaizko bake epaitegiko bake epaile titular eta ordezkoko lanpostuak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO) 101. eta 102. artikuluetan xedatutakoarekin bat, eta 3/1995 Araudiak, ekainaren 7koak, bake epaileei buruzkoak, 5. artikuluan xedatutakoa betez, udalbatza honek aukeratu egingo ditu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Batzordeari proposatu, Urkabustaizko bake epaitegiko bake epaile titularra eta ordezkoa.

Aipatutako legean hala jasota dagoenez gero, honako hauek ezinbesteko betekizunak izango dira:

Adinez nagusia izatea.

Espainiako naziotasuna izatea.

Urkabustaizko Udalerrian errolatuta egotea.

Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea.

Ez da eskatzen titulazio jakin bat, ezpada gaitasun nahikoa bake epailearen betebeharrak eta eginkizunak betetzeko.

Ezintasun kausa dira honako hauek (BJLOren 303. artikulua): fisikoki edo psikikoki funtzio judiziala betetzeko gai ez izatea; dolozko delituagatik kondenatuta egotea, birgaitzea lortzen ez den bitartean; dolozko delituagatik kondenatuta egotea, absolbituta egon ezean edo largespen-autoa jaso ezean, eta eskubide zibilak erabat baliatu ezin izatea.

Bateraezintasun kausa dira honako hauek (BJLOren 389. artikulua): Botere Judizialaz kanpoko beste edozein jurisdikziotan jardutea; herriak hautetsitako edozein kargu izatea edo Estatuko, autonomia erkidegoetako, probintzietako eta gainerako toki erakunde eta haien mendeko organismoetako izendapen politikoa izatea; Estatuaren Administrazioak, Gorte Nagusiak, Errege Etxeak, autonomia erkidegoek, probintziek, udalerriek eta haien mendeko edozein entitate, organismo edo enpresak esleitutako edo ordaindutako postu edo kargua izatea; beste edozein jurisdikzio-ordenatuko auzitegi eta epaitegietako era guztietako postuetan aritzea, eta orotariko aholkularitza juridikoa ematen jardutea.

Halaber, bake epaileak ezingo dira alderdi politiko edo sindikatu bateko kide izan eta ezingo dute horien zerbitzurako lan egin, eta debekatuta dute BJLOren 395. artikuluan (3/1995 Araudiaren 23. artikulua) jasota dauden jarduerak gauzatzea.

Hautagaitza aurkeztu nahi duten pertsonak udaletxean egin ahal izango dute, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo 30 egun naturaletan.

Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

NANaren fotokopia

Zigor aurrekaririk ezaren ziurtagiria.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hau.

Izarra, 2019ko maiatzaren 22a

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA*